

Noemi Goierrikoa eta Manilvakoa da, eta Psikologian lizentziaduna, Psikoterapia Humanista Integratiboan masterra eta antzerki fisikoan graduatua Madrilgo Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolan. Antzerkigintzan, telebistan eta zineman, hainbat proiektutan hartu du parte, eta, aldi berean, trebatzen jarraitu du zenbait profesionalekin, besteak beste: Sarah Kane, Marta Pazos, Alain Vigneau, Vicente Fuentes, Jo Kelly eta Virginia Imaz.

Gaur egun, alderdi instintiboenaren lanketa (berea zein ikasleena) fintzeari jarri dio arreta, batez ere baldintzapen sozial eta emozional oro *desikasteari*, benetakotasun eta askatasun osoz gogoratzeko berriro ere nola izan (eta ez nola jardun).